



ADIKZIOEI BURUZKO EAE-KO INKESTA 2017

Tabakoaren kontsumoari buruzko monografikoa

Laburpena

1. Azterlanaren justifikazioa

Egun, tabakismoa osasun publikoko arazoa da mundu osoan, eta efektu garrantzitsuak ditu heriotza, gaixotasun eta desgaitasun tasetan. Horietan guztietan honako agente hauek daude inplikaturik: erretzaileetatik hasi eta osasun-sistemara arteko guztiak, barne hartuta administrazio publikoak eta tabako-industria.

Tabakoaren kontsumoa gizarteko talde guztietan presente egon arren, haren kontsumoa hertsiki loturik dago pertsonen egoera sozioekonomikoarekin, eta denboran zehar egiaztatu ahal izan denez, gizarteko talde batzuen esposizioa handiagoa da beste batzuen bano. Zentzu horretan, orain arte egindako ikerketek lau fase identifikatu dituzte herrialde garatueto tabakismo-epidemiaren barnean.

Tabakismoaren zabaltzeari dagokionez, herrialde garatueto tabakismo-epidemiak lau fase izan dituela baieza daiteke.

- Lehen fasean, tabako-kontsumoaren prebalentzia baxua da, eta batez ere goi-mailako talde sozioekonomikoetako gizonei eragiten die.
- Bigarren fasean, tabako-kontsumoaren prebalentzia arin handitzen da gizonen artean, eta antzekoa da talde sozioekonomiko guztietan. Fase horretan prebalentzia emakumeengan oraindik ere baxua den arren, apur bat handitzen da egoera onenetan daude emakumeen kasuan.
- Hirugarren fasean, kontsumoa nabarmen murrizten da gizonen artean, egoera sozioekonomiko onenetan daudenen artean batez ere; beraz, gizonen arteko desoreka sozialak handitu egiten dira. Emakumeen artean, berriz, kontsumoaren prebalentzia handitzen doa.
- Bukatzeko, azken fasean apurka-apurka murriztu da tabakoaren kontsumoa, hala gizonetan nola emakumetan, eta kontsumoa batez ere maila sozioekonomiko baxueneko taldeetan kontzentratzen da.



Herrialde guztiek prozesu bera jarraitu ez duten arren, Europako iparraldeko herrialde gehienak azken fasean daude: tabakismoa beharrik handienak dituzten talde sozioekonomikoetan kontzentratuta dago, eta, horrenbestez, desorekak handitzen ari dira. Europa hegoaldeko herrialdeek, ostera, etapa horiek beranduago bete dituzte.

Monografiko honek espezifikoki aztertzen du 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren tabako-kontsumoa, eta prebalentziaren, maiztasunaren eta intentsitatearen ikuspegi orokorra eskaintzen du. Halaber, ikerketa honek ahalbidetu egiten du herritarrek tabakoaren kontsumoari dagokionez dituzten jarrerak eta pertzepzioak ezagutzea, baita arlo horretako politika interesgarri jakin batzuen gainean duten iritzia ere. Monografikoaren indarguneetako bat da substantzia horren kontsumoaren azken 25 urteetako bilakaera eskaintzen duela.

2. Helburuak eta metodologia

Monografikoaren helburu nagusia da Adikzioei buruzko EAEko 2017ko inkestak tabako-kontsumoari buruz emandako emaitzak deskribatzea eta analizatzea, prebalentziari eta kontsumo-ereduei, joera nagusiei eta haien ebaluazioari, gizarteko taldeen arabera banaketari, gizarte-pertzepzioari eta balorazioari dagokienez.

Adikzioei buruzko EAEko Inkesta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sustatutako estatistika-eragiketa bat da –lehenengo Euskadi eta Drogak–, eta 2014-2017 Euskal Estatistika Planean sartuta dago. Estatistika-eragiketa hau etxex etxeko inkesta bat da, eta hainbat adikzio –substantziekin edo substantziarik gabe– 15 eta 74 urte arteko euskal biztanleen artean duten prebalentzia ezagutzea du helburu, baita droga-kontsumoarekin eta adikzioekin zerikusia duten hainbat gai hautematea eta baloratzea ere. 1992an egin zen lehen inkesta eta, oro har, 25 urteko denbora-tartea hartzen du, hamabi edizio ditu eta drogen esparruan egiten den estatistika-eragiketa zaharrenetako bat da, gure ingurunean finkatuen dagoenetako bat.

Bi analisi-metodo osagarri erabili ditugu ezarritako helburuak lortzeko.


- Lehenik, tabakoaren kontsumoarekin lotutako aldagai nagusien azterketa deskriptibo bat egin da, bai eta herritarrek substantzia horren kontsumoari buruz duten pertzepzioa eta arlo horretako politika jakin batzuei buruz duten iritzia biltzen dituzten aldagaiena ere. Menpeko aldagai kualitatiboen kasuan, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera prebalentzia estandarizatuak kalkulatu dira emakume eta gizonentzat. Adinaren arabera estandarizazioa egiteko, metodo zuzena erabili da, eta EINek 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria erroldan EAerako jasotako biztanleria hartu da erreferentziatzat. Analsiak sexuaren arabera bereizi dira, eta prebalentzia orokorren kasuan, ikasketa-mailaren arabera.
- Bigarrenik, azterketa deskriptibo hori osatu egin dugu aldagai soziodemografiko nagusiek tabakoaren kontsumoan duten eraginari buruzko azterketa esplikatibo batekin. Analsi hori egiteko, lehenik eta behin, khi karratuaren proba egin da, % 95eko esangura-mailarekin ($\alpha \geq 0,05$). Bigarrenik, Odds Ratio (OR) deritzona kalkulatu da, hartara erregresio logistikoko ereduak baliatuz eta ereduok sexuaren, ikasketa-mailaren eta adin-tartearen arabera bereiziz. Sexuaren eta ikasketa-mailaren kasuan, erregresio-ereduak adinaren arabera ezarri dira, modu horretan aldagai hori nahasmendu-faktore gisa kontrolatu ahal izateko.

3. Eraitza nagusiak

a) Tabakoa-kontsumoaren prebalentzia orokorrek adinaren eta ikasketa-mailaren arabera, sexuka berezita

2017an, 15 eta 74 urte arteko euskal biztanleen erdiek baino apur bat gehiagok adierazi zuten bizitzan noizbait probatu dutela tabakoa (% 51,2). Zehazki, horietatik % 25,9k adierazi zuten azken 12 hilabeteetan kontsumitu zutela, % 25 baino apur bat gutxiagok (% 24,6) azken 30 egunetan eta biztanleen % 22,1ek egunero. Tabakoaren kontsumoa ez zen homoginoa biztanleen artean, eta EAEn desberdintasun nabarmenak zeuden sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera.

1. koadroa. Kontsumo-prebalentzia orokorrek, adin-taldean arabera, 2017 (%). Sexuaren arabera berezitako datuak



Guztizkoa	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	16,1	33,2	42,9	48,8	55,3	55,8	65,4	44,0
Azken 12 hilabeteetan*	15,2	24,2	33,8	28,4	29,5	29,7	29,4	11,1
Azken 30 egunetan*	15,2	21,7	31,5	27,0	28,1	28,2	28,8	10,1
Egunero	12,1	16,1	27,5	22,8	23,4	26,9	27,4	10,1
Emakumeak	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	14,7	31,3	40,9	48,9	58,3	49,3	55,3	26,5
Azken 12 hilabeteetan*	14,7	22,9	30,5	23,7	30,2	22,5	23,6	9,4
Azken 30 egunetan*	14,7	20,6	29,1	23,0	28,3	21,6	23,1	7,5
Egunero	11,0	16,4	27,6	16,5	23,9	20,0	21,7	7,5
Gizonak	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	17,5	35,1	44,8	48,7	52,2	61,9	76,0	64,1
Azken 12 hilabeteetan*	15,6	25,6	36,8	32,9	28,7	36,3	35,4	13,1
Azken 30 egunetan*	15,6	22,8	33,7	31,0	27,8	34,4	34,8	13,1
Egunero	13,3	15,7	27,4	28,9	22,9	33,3	33,4	13,1


*Zenbatespena.

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta, 2017.

Tabakoaren kontsumoaren prebalentzia orokorrak hertsiki lotuta daude emakumeen eta gizonen bizitza-prozesuekin, eta aldatu egiten dira kontsumitzaileen bizitzako etaparen arabera. 2017an tabakoaren kontsumoaren murrizketa eragiten zuten bi puntu garrantzitsu hauteman ziren biztanleen bizitzetan, hala emakumetan nola gizonetan: seme-alabak izatea (apur bat beranduago gizonetan) eta erretiroa hartzea.

Ikasketa-mailari dagokionez, zenbat eta ikasketa-maila baxuagoa izan, orduan eta handiagoa zen prebalentzia emakumetan eta gizonetan, salbuespen bakarrarekin: «noizbait» kontsumitu izana emakumeen bizitzan, datu horrek kontrako patroia baitzuen gainerako kategorien aldean. Hain zuzen, belaunaldien arteko kontsumo-patroiaren aldaketa zen, nagusiki, horren kausa.

2. koadroa. Tabako-kontsumoaren prebalentzia orokorrak, ikasketa-mailaren arabera, 2017 (%). Sexuaren arabera bereizitako datuak. Datuak adinaren arabera estandarizatuta daude



		Bizitzan noizbait	Azken 12 hilabeteetan*	Azken 30 egunetan**	Egunero
Guztizkoa	Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	48,1	30,4	29,0	27,3
	Bigarren mailako ikasketak	52,8	26,1	25,1	22,9
	Unibertsitate-ikasketak	51,7	21,1	19,6	15,6
Emakumeak *	Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	44,1	28,7	27,1	25,4
	Bigarren mailako ikasketak	48,7	22,6	21,4	18,4
	Unibertsitate-ikasketak	52,1	21,9	21	17,8
Gizonak*	Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	62,0	41,1	39,7	37,1
	Bigarren mailako ikasketak	57,1	28,5	27,7	26,5
	Unibertsitate-ikasketak	52,6	19,5	17,1	12,1

*Adinaren arabera estandarizatutako datuak.


**Zenbatespena.

Iturria: Adikizioei buruzko EAeko Inkesta, 2017, eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

b) Adinaren eta maila sozioekonomikoaren arabera tabako-kontsumoaren adierazle nagusien prebalentziaren bilakaera denboran zehar, sexuka

Bilakaera-datuak oso emaitza positiboak erakutsi zituzten; izan ere, mantendu egin zen tabako-kontsumoaren prebalentzia murrizteko 2008an hasitako joera. Are gehiago, 2017an egindako inkesta guztietako prebalentziarik baxuenak erregistratu ziren, tabakoa azken 12 hilabeteetan, azken 30 egunetan eta egunero kontsumitzeari dagokionez, emakumetan eta gizonetan.

3. koadroa. Tabakoaren prebalentzia orokorren bilakaera (%). Sexuaren arabera bereizitako datuak. Datuak adinaren arabera estandarizatu daude



		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Guztizk oa	Noizbait	59,2	56,4	55,4	47,6	49,0	61,0	53,7	59,6	60,2	59,3	54,4	51,2
	Azken 12 hilabeteak	-	-	-	-	-	-	-	-	38,2	36,1	31,2	25,9
	Azken 30 egunak	38,8	38,9	35,2	34,4	35,0	36,9	35,0	35,6	35,2	33,5	29,3	24,6
	Egunero	-	-	-	-	28,6	-	30,3	30,9	32,6	31,3	25,5	22,1
Ema- kumea k	Noizbait	43,9	34,0	35,4	34,9	38,4	51,9	46,4	49,2	49,5	52,3	48,5	45,6
	Azken 12 hilabeteak	-	-	-	-	-	-	-	-	32,9	31,5	28,5	22,5
	Azken 30 egunak	28,0	24,7	22,0	25,7	26,7	31,2	30,5	29,5	29,8	28,5	26,2	21,3
	Egunero	-	-	-	-	23,2	-	26,2	25,7	28,7	26,8	22,8	18,7
Gi- zonak	Noizbait	73,1	75,8	70,7	61,9	58,1	69,2	60,9	70,2	70,7	66,6	60,0	57,0
	Azken 12 hilabeteak	-	-	-	-	-	-	-	-	40,9	39,4	32,3	29,3
	Azken 30 egunak	43,3	47,8	40,8	40,7	38,7	39,2	36,8	38,5	38,0	37,1	31,1	28,1
	Egunero	-	-	-	-	30,2	-	31,9	33,7	33,7	34,5	27,1	25,6

*Zenbatespena.

Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.


Alabaina, ikasketa-mailaren araberako eguneroko tabako-kontsumoa ez dator bat belaunaldi ezberdinen artean, eta hori tabakismo-epidemiaren fase ezberdinekin dago lotuta.

45 eta 74 urte arteko gizonei dagokienez, prebalentzia handiagoa zuten 2004an ikasketa-mailarik altuena zutenak. Oстера, 2006tik aurrera, berdindu egin ziren ikasketa-maila ezberdinetako gizonen arteko prebalentziak, eta gerora, handitu egin zen prebalentzia hori ikasketa-maila apalagoa zuten gizonen artean. Aldi berean, handitu egin zen talde bien arteko distantzia.

45 eta 74 urte arteko emakumeen kasuan, patroialdaketa bat hauteman zen azken edizioan; batez ere, murriztu egin zelako ikasketa-maila altuko emakumeen eguneroko kontsumoaren prebalentzia.


Gazteen artean bi datu dira aipatzeko modukoak: batetik, 2008-2010 aldian prebalentziaren etengabeko murrizketa egon zela bi sexueta eta bestetik, murriztu egin zela ikasketa-maila ezberdinetako biztanleriaren arteko distantzia.

4. koadroa. Eguneroko tabako-kontsumoaren prebalentziaren bilakaera, ikasketa-mailaren eta adin-taldeen arabera (%). Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak.



[Jarraipena]

5. koadroa. Eguneroko tabako-kontsumoaren prebalentziaren bilakaera, ikasketa-mailaren eta adin-taldeen arabera (%). Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak




Guztizkoa		2004	2006	2008	2010	2012	2017
15-44	Ikasketa-maila apala	45,6	44,7	46,3	41,3	34,4	26,7
	Ikasketa-maila altua	32,6	34,3	37,1	34,8	26,6	20,3
45-74	Ikasketa-maila apala	16,2	19,6	20,7	23,1	21,8	27,6
	Ikasketa-maila altua	33,6	29,1	30,0	26,9	23,4	19,8
Emakumeak		2004	2006	2008	2010	2012	2017
15-44	Ikasketa-maila apala	45,3	41,9	46,9	33,1	27,0	23,8
	Ikasketa-maila altua	37,1	33,3	35,8	35,5	23,9	20,0
45-74	Ikasketa-maila apala	10,0	12,3	15,8	14,3	17,6	17,9
	Ikasketa-maila altua	27,6	29,6	30,1	25,7	27,2	16,4
Gizonak		2004	2006	2008	2010	2012	2017
15-44	Ikasketa-maila apala	45,9	47,2	45,8	48,2	39,5	28,5
	Ikasketa-maila altua	28,2	35,2	38,4	34,1	29,3	20,6
45-74	Ikasketa-maila apala	24,6	30,2	28,0	34,2	27,9	40,3
	Ikasketa-maila altua	37,2	28,8	29,9	27,9	20,5	22,8

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta.

c) Tabako-kontsumoaren tipologia sexuaren, adinaren eta maila sozioekonomikoaren arabera

2017an, tabakoa inoiz kontsumitu ez zuten pertsonen taldea zen talderik jendetsuena (biztanleriaren % 48,8). Honela banatuta zegoen gainerako biztanleria: tabakoa kontsumitzeari utzi diotenak (% 26,5), noizean behingo kontsumitzaileak (% 2,65) eta normalean tabakoa kontsumitzen dutenak (% 22,1). Momentu hartako tabako-kontsumoaren araberako biztanleriaren banaketak argi eta garbi erakusten zuen gizonek harreman gehiago zutela tabakoarekin emakumeek baino. Lau gizonetik batek tabakoa kontsumitzen zuen normalean, hau da, gizonen % 25,6k. Emakumeen kasuan, % 18 ziren ohiko kontsumitzaileak. Gizonezkoen % 28,8 eta emakumeen % 24,3k adierazi zuten, aldiz, tabakoa kontsumitzeari utzi ziotela. Ostera, handiagoa zen tabakoa inoiz kontsumitu ez zuten emakumeen proportzioa (% 54,4), gizonena baino (% 43).

6. koadroa. Biztanleriaren banaketa, tabako-kontsumoaren arabera, 2017 (%). Sexuaren arabera bereizitako datuak. Datuak adinaren arabera estandarizatuta daude



	Guztizkoa	Emakumeak*	Gizonak*	G/E ratioa
Ez du inoiz probatu	22,1	54,4	43,0	0,8
Kontsumitzeari utzi dio**	2,6	24,3	28,9	1,2
Noizbehinkako kontsumoa	26,5	2,6	2,6	1,0
Ohiko kontsumoa	48,8	18,7	25,6	1,4

*Adinaren arabera estandarizatutako datuak.


** «Kontsumitzeari utzi dio» kategoriak beren bizitzan zehar erre duten arren, gaur egun erretzen ez dutenei egiten die erreferentzia, aintzat hartu gabe lehen noizean behin edo egunero erretzen zuten.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

Adinaren arabera tabako-kontsumoaren tipologiaren banaketak agerian utzi zuen emakumeen kasuan tarteko adin-tartean kontzentratuta zegoela tabakoarekin harremanen bat izan zuen biztanleriaren proportziorik handiena (momentu horretan normalean edo noizean behin kontsumitzen zuelako edo kontsumitzeari utzi ziolako). Patroi horren arabera, tabakoarekin inolako harremanik ez zuen emakumeen proportzioa handiagoa zen gazteen artean (15-24 urte) eta nagusien artean (65-74 urte). Bi adin-tarte horietako emakumeen % 70ek baino gehiagok adierazi zuen ez zuela inoiz tabakorik probatu.

Alabaina, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunik handienak pertsona nagusien adin-tartean daude. Tabakoa normalean kontsumitzen zuten edo kontsumitzeari utzi zioten pertsonen proportzioa handiagoa zen gizonen taldean. Aldiz, emakumeen artean nabarmenagoa zen tabakoa inoiz probatu ez zutenen proportzioa. Hori, zalantzarik gabe, oso lotuta dago gizarte-rolarekin eta emakumeek eta gizek denboran zehar izandako sozializazio-prozesuekin.

7. koadroa. Biztanleriaren banaketa, tabako-kontsumoaren arabera, adin-tarteka bereizita 2017 (%). Sexuaren arabera bereizitako datuak




Guztizkoa	15-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Ohiko erretzailea	14,3	27,5	22,8	23,4	26,9	27,4	10,1
Noizbehinkako erretzailea	4,5	4,0	4,3	4,7	1,3	1,4	0,0
Tabakoa utzi du	6,7	11,4	21,8	27,2	27,6	36,5	33,9
Ez du inoiz probatu	74,5	57,1	51,2	44,7	44,2	34,6	56,0
Emakumeak	15-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Ohiko erretzailea	13,9	27,6	16,5	23,9	20,0	21,7	7,5
Noizbehinkako erretzailea	4,0	1,5	6,5	4,4	1,7	1,4	0,0
Tabakoa utzi du	5,9	11,8	26,0	30,0	27,7	32,2	19,0
Ez du inoiz probatu	76,2	59,1	51,1	41,7	50,7	44,7	73,5
Gizonak	15-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Ohiko erretzailea	14,6	27,4	28,9	22,9	33,3	33,4	13,1
Noizbehinkako erretzailea	4,9	6,3	2,1	4,9	1,0	1,4	0,0
Tabakoa utzi du	7,6	11,1	17,7	24,3	27,5	41,1	51,0
Ez du inoiz probatu	72,9	55,2	51,3	47,8	38,1	24,0	35,9

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

Gainera, EAEko tabakoaren kontsumoan ikasketa-mailaren arabera erabakitako errendimendu soziala ere badago, batez ere gizonen artean. Zehazki, ohiko kontsumoak gora egiten du ikasketa-mailak behera egiten duen heinean. Alabaina, tabakoa utzi duten gizonen eta inoiz probatu ez duten gizonen proportzioak gradualki egiten du gora ikasketa-mailak ere gora egiten duen neurrian. Emakumeen kasuan, erretzaileen eta tabakoa inoiz probatu ez dutenen artean ikusten da, batez ere, gizarte-mailaren arabera erabakitako errendimendu hori. Aldiz, alderantzik egiten da tabakoa erretzeari utzi dutenen proportzioari dagokionez, kasu horretan gehiago direlako unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak.

8. koadroa. Biztanleriaren banaketa, tabako-kontsumoaren arabera, ikasketa-maila bereizita 2017 (%). Sexuaren arabera bereizitako datuak. Datuak adinaren arabera estandarizatu daude



Guztizkoa	Ohiko erretzailea	Noizbehinkako erretzailea	Tabakoa utzi du	Ez du inoiz probatu
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	27,3	1,7	19,1	51,9
Bigarren mailako ikasketak	22,9	2,2	27,8	47,2
Unibertsitate-ikasketak	15,6	4,0	32,1	48,3
Emakumeak*	Ohiko erretzailea	Noizbehinkako erretzailea	Tabakoa utzi du	Ez du inoiz probatu
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	25,4	1,8	16,9	55,9
Bigarren mailako ikasketak	18,4	3,0	27,3	51,3
Unibertsitate-ikasketak	17,8	3,3	31,1	47,9
Gizonak*	Ohiko erretzailea	Noizbehinkako erretzailea	Tabakoa utzi du	Ez du inoiz probatu
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	37,1	2,5	22,3	38,0
Bigarren mailako ikasketak	26,5	1,2	29,4	42,9
Unibertsitate-ikasketak	12,1	5,1	35,5	47,4

*Adinaren arabera estandarizaturako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta eta EINen 2017ko urtarilaren 1eko biztanleria-errola.

d) Tabako-kontsumoaren pertzepzioa sexuaren arabera

2017an, euskal biztanleen % 22,3k uste zuen tabako-kontsumoaren egoera oso larria zela, eta % 44,9k, aldiz, nahiko larria zela. Kontsumoaren egoera nahiko larria edo oso larria zela uste zutenen ehunekoa handitu egin zen inkestaren aurreko edizioaren aldean (2012), eta modu horretan, eten egin zen 2008an hasitako larritasun-mailaren pertzepzioaren beherakada.

2004tik 2012ra bitartean gradualki joan zen murrizten EAEn tabakoaren kontsumoa handitzen ari zela uste zutenen proportzioa. Azken edizioan egonkortu egin zela zirudien, eta, horrez gain, murriztu egin zen emakumeen eta gizonen arteko aldea.

2017ko azken edizioan are gehiago handitu zen egunero tabako-pakete bat kontsumitzeari egotzitako larritasuna. Ia biztanleria osoak uste zuen egunero tabako-pakete bat kontsumitzeak arazo nahiko edo ugari eragiten dituela, zehazki, emakumeen % 98,2k eta gizonen % 97,3k.

Nahiz eta azken urteotan emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak murrizten ari diren, 2017an emakumeen balorazioa negatiboagoa zen EAeko tabako-kontsumoari dagokionez, eta larritasun handiagoa egozten zioten tabako-kontsumoari gizonen baino. Aldiz, gizonen garrantzia kentzen zioten arazoari, eta permisiboagoak ziren kontsumo hori ebaluatzeko orduan.

1. taula. Tabako-kontsumoarekin lotutako hainbat pertzepzioren bilakaera (%). Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak. Datuak adinaren arabera estandarizatuta daude

Gututzikoa	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
EAEko kontsumoa nahiko larria edo oso larria da	59,5	51,8	68,7	63,0	66,5	63,4	57,8	67,2
Tabako-kontsumoa areagotu egin da azken urteotan	-	-	52,7	46,5	35,0	28,1	23,4	21,9
Egunero tabako-pakete bat erretzeak arazo nahiko edo ugari eragiten ditu	-	-	-	87,8	86,7	91,8	88,5	97,8
Emakumeak*	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
EAEko kontsumoa nahiko larria edo oso larria da	62,1	56,4	76,0	68,0	71,8	67,7	61,4	71,8
Tabako-kontsumoa areagotu egin da azken urteotan	-	-	60,1	52,1	38,3	31,5	25,7	23,5
Egunero tabako-pakete bat erretzeak arazo nahiko edo ugari eragiten ditu	-	-	-	88,9	89,5	93,7	90,2	98,2
Gizonak*	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
EAEko kontsumoa nahiko larria edo oso larria da	57,0	47,3	61,2	58,0	61,1	59,0	54,3	62,5
Tabako-kontsumoa areagotu egin da azken urteotan	-	-	45,2	40,9	31,7	24,7	21,1	20,4
Egunero tabako-pakete bat erretzeak arazo nahiko edo ugari eragiten ditu	-	-	-	86,7	83,9	90,0	86,8	97,3

Oharra: Grafiko honetan jasotako proportzioak biztanleria osoa kontuan hartuta kalkulatuta dira.

*Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

4. Ondorioak

2017an, tabakoa EAEko biztanleek gehien kontsumitzen zuten bigarren substantzia psikoaktiboa zen, alkoholaren atzetik. Alabaina, tabakoaren kontsumoa ez zen homoginoa, eta alde nabarmenak zeuden sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera.

Tabakoaren kontsumoaren prebalentzia orokorrak oso lotuta zeuden emakumeen eta gizonen bizitza-prozesuekin, eta aldatu egiten ziren unean uneko bizitza-fasearen arabera. Zentzu horretan, seme-alabak izateak eta erretiratzeak eragina zuten tabakoaren kontsumoaren murrizketan, hala emakumeen nola gizonen kasuan.

Gure inguruneko beste ikerketa batzuen ildo beretik, ikasketa-mailaren araberako gradiente bat hauteman zen: zenbat eta ikasketa-maila baxuagoa izan, orduan eta handiagoa zen prebalentzia emakume nahiz gizonengan (salbuespena: emakumeen bizitzan zeharreko kontsumoa, datu horrek kontrako patroia baitzuen gainerako kategorietako datuen patroien aldean).

Bilakaera-datuek oso emaitza positiboak erakutsi zituzten; izan ere, mantendu egin zen tabako-kontsumoaren prebalentzia murrizteko 2008an hasitako joera. Are gehiago, 2017an egindako inkesta guztietako prebalentziarik baxuenak erregistratu ziren, tabakoa azken 12 hilabeteetan, azken 30 egunetan eta egunero kontsumitzeari dagokionez, emakumetan eta gizonetan. Alabaina, ikasketa-mailaren eguneroko tabako-kontsumoa ez dator bat belaunaldi ezberdinen artean, eta hori tabakismo-epidemiaren fase ezberdinekin dago lotuta.

Momentu hartako tabako-kontsumoaren araberako biztanleriaren banaketak argi eta garbi erakusten zuen gizonen harreman gehiago zutela tabakoarekin emakumeek baino. Ohiko erretzaileen proportzioa handiagoa zen gizonen artean emakumeen artean baino. Ostera, handiagoa zen inoiz erre ez zuten emakumeen proportzioa. Biztanleek tabakoarekiko duten kontaktuan hautemandako sexuaren araberako ezberdintasun horiek bereziki nabarmenak ziren biztanle helduenen artean. Halaber, datuek tabakoaren kontsumoan gizarte-mailaketa ere badagoela utzi zuten agerian, zehazki, ikasketa-mailari dagokionez: zenbat eta ikasketa-maila baxuagoa izan, orduan eta ohiko kontsumo handiagoa. Patroi hori alderantzikatu egiten zen tabakoa inoiz erre ez duten emakumeen patroian: zenbat eta ikasketa-maila baxuagoa izan, orduan eta gehiago ziren inoiz erre ez duten emakumeak. Unibertsitate-ikasketak izateak eragin positiboa zuen tabakoa kontsumitzeari uztean, sexu bietan.

Horrez gain, biztanleriak, oro har, tabako-kontsumoari egotzitako larritasuna handitu egin zela hauteman zen. Izan ere, batetik, handitu egin zen tabakoaren kontsumoa nahiko larria edo oso larria dela uste zuten biztanleen ehunekoa eta, bestetik, 2004tik 2012ra bitartean gradualki joan zen murrizten EAEn tabakoaren kontsumoa handitzen ari zela uste zutenen proportzioa. Azkenik, 2017an ia biztanleria guztiek uste zuten egunero pakete bat baino gehiago erretzeak arazo nahiko edo ugari eragiten dituela. Oro har, emakumeek negatiboki baloratzen zuten EAEko egoera, eta larritasun handiagoa egotzen zioten tabako-kontsumoari gizonen baino.